

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzen 2018-19ko deialdiaren oinarriak

Udal honek, 2019ko irailaren 6an egindako bilkuran, 2018-2019 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntza deialdiaren oinarriak onartu zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen Lege Orokorrak 9. artikuluan aurreikusitakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZEN 2018-19KO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da 2018/2019 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta ostatukoak ez), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

Bigarrena. Onuradunak

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira:

- a) Iruraiz-Gauna udalerrian erroldatuta egotea, bai ikasturte hasieran bai amaieran.
- b) Izena ematean 16 urte baino gehiago edukitzea.
- c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiaren baten matrikulatuta egotea. Hala ez bada, aipatutako euskaltegieta matrikulak hartuko dira aintzat; hain zuzen ere, ezaugarri bertsuak dituen matrikularik garestiena.
- d) Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Ikasketetarako baino ez da emango dirulaguntza; ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.
- e) Hautatutako ikastaroa, gutxienez, euskalduntze edo alfabetatze urrats baten parekoa izan behar da.
- f) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da, edo ikastaroa gainditu.

Hirugarrena. Agiriak eta eskaerak

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Udalak egindako eskabide ofiziala.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.
- c) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banketxeak emana.
- d) Ikastaroaren ezaugarriak jakinarazten dituen euskaltegiaren agiria: ikasturtearen hasiera eta amaiera, asistentziari buruzko datuak, ikastaroa(k) gainditu izanaren akreditazioa...
- e) Barnetegi batera joanez gero, euskaltegiaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banan-banan zehaztuko dira.
- f) Langabezian egonez gero, hori hala dela egiaztatzen duen agiria.

g) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa egiaztatzen duen agiria.

Laugarrena. Eskabideak aurkezteko epealdia eta tokia

a) Eskaerak Iruraiz-Gaunako Udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira, bertan ematen den inprimakian, eskatzen diren agiriekin batera, 2019ko urriaren 31ra arte.

b) Kreditu erabilgarria egonez gero, aztertu ahal izango dira epez kanpo aurkeztu diren eskaerak.

Bosgarrena. Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2019ko aurrekontu orokorreko 451 480 000 partidaren kredituari egotziko zaizkio, zeina 1.500,00 euroz hornituta baitago.

Dirulaguntzaren zenbatekoa honako hauen arabera zehaztuko da, betiere kontuan izanik aurrekontu kredituaren muga:

a) Langabezian egonez gero, matrikularen ehuneko 80 jasoko du eskatzaileak, araudian ezarrita dagoen gehienezko zenbatekoa baino gehiago ez bada. Gehiago bada, ezarritako gehienezko zenbatekoa jasoko du.

b) Gainerako kasuetan, matrikula osoaren ehuneko 50 ordainduko zaio, zenbatekoa araudian ezarrita dagoen gehienezko zenbatekoa baino gehiago ez bada. Gehiago bada, ezarritako gehienezko zenbatekoa jasoko du.

c) Dirulaguntzaren gehienezko kopurua: 500 euro.

d) Eskatzaileek ikasturteak dirauen bitartean haren ehuneko 40an baino luzeagoan lanean badihardute, bekaren ehuneko 50 jasoko dute. Eskatzaileek ikasturteak dirauen bitartean haren ehuneko 40an baino gutxiagoan lanean badihardute, langabezian dagoela ulertuko da, eta matrikularen ehuneko 80 jasoko du.

e) Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, lanaldia ehuneko 40tik beherakoa bada (40 orduko astea kontuan hartuta), langabezian dagoela ulertuko da, eta matrikularen ehuneko 80 jasoko du. Lanaldia ehuneko 40tik gorakoa badu, matrikularen ehuneko 50 jasoko du.

f) Eskatzaileak beste erakunderen baten laguntza jasotzen badu eta laguntza hori araudiak xedatutakoa baino gutxiago bada, Udalak ordainduko du aldea.

Baldin eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta dirulaguntzen gehienezko zenbatekoak gutxitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie eskatzaile guztiei.

Seigarrena. Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta dirulaguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada.

Euskara ikasteko bestelako laguntza edo dirulaguntzak eskatzeko aukera izanez gero (Merkataritza Ganbera...), eskatu egin behar dira.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi behar dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

Zazpigarrena. Onuradunen betebeharrak

– Emandako laguntza onartzea eta eskatutako xederako erabiltzea.

– Eskatutako ikastaroa edo ikastaroak egin izana egiaztatzea, bai eta laguntza jasotzeko ezarri diren betekizunak eta baldintzak bete izana ere.

- Laguntzan eragina duten aldakuntza edo aldaketa guztiak idatziz jakinaraztea.
- Iruraiz-Gaunako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste erakunde eskudunen batek eskatutako argibide oro ematea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzak ezarritako betebeharrak.

Zortzigarrena. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Euskara zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko, horien indarrez egin behar baita ebazpen proposamena.

Iruraiz-Gaunako Udaleko alkatea da dirulaguntzak ebazteko organo eskuduna, eta frogagiriak aurkeztu ondoren ordainduko da emandako dirulaguntza osoa.

Eskaeren ebazpena gehienez ere hiru hilabeteren barruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta bertan adieraziko dira haren aurka jar daitezkeen errekursoak. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da ebazpena.

Bederatzigarrena. Laguntza galtzea eta dirua itzultzeko prozedura

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espedientea irekita, honako kasu hauetan:

- Daturen bat faltsutu bada eskaeran edota eskatutako agirietan.
- Laguntza erabili ez bada hura eman zen xede eta jardueretarako.
- Ezarritako betebeharren bat bete ez bada.

Hamargarrena. Errekursoak

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekursoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekursoa deialdi hau onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren ebazpen espres edo presuntzioskoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekursoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekursoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntzioskoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziosko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Hamaikagarrena. Beste xedapen batzuk

Oinarri hauek interpretatzean zalantzaren bat sortzen bada, Iruraiz-Gaunako Udalak ebatziko du.

Azilu, 2019ko irailaren 9a

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAJA CUBILLO